

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

15. alea
2014ko abendua



Aner Garmendia:

**"Euskarak konpromisoa eragiten du,
taldearen kohesioa; horri esker ere
lortzen da arrakasta"**



Lazarraga
Sariak
2014

Onurarik handiena, barrura begirakoa



Rober Gutiérrez [Zuzendaria]
@robergutierrez

Zergatik aritzen zarete enpresa arloan? Zergatik ari zarete alor sozioekonomikoaren euskalduntzean? Inoiz baino gehiago, euskarak gizartearen eremu guztietara hedatu behar duelako, etxetik kalera, kaletik erakundeetara, ikastetxe eta unibertsitateetatik enpresetara, komertzioetara... Euskaraz lan egin, kontsumitu eta bizi nahi duten pertsonen hautu hori bermatzen lagundu nahi diegulako. Euskarak balio erantsia eskaintzen baitio herri honetako arlo sozioekonomikoari. Euskaraz komunikatzeko gaitasunak bide berriak irekitzen baitizkigu eta hori nabarmendu beharra dago.

Berriki, euskararen erabileraren aldeko oso argumentu interesgarria entzun nion Gasteizko Egamaster enpresako Aner Garmendiari. Bere ustez, kanpora begira, bezeroen ikuspegitik euskararen ezagutza eta erabilera garrantzitsuak badira ere, are inportanteagoak dira barrura begira. Enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen barne kohesioan, lan taldearen motibazioan, funtzionamendu egokian, pertsonen formazioan eta inplikazioan zuzeneko eragina baitu euskarak. Talde indartsuagoak, inplikatuagoak eta konprometituagoak sustatzen ditu, eta

gaur egungo merkatuari begira oso garrantzitsua da. Merkatua globala da, eta askok hausnarketa sinplera joko dute agian, zergatik hortaz euskaraz? Erakunde indartsuak ahulak baino hobeto posizionatuko direlako merkaturan. Euskarak gure erakundeak indartsuago egiten ditu, pertsona konprometitu eta inplikatuak sustatuz. Beraz, enpresek euskararen aldeko apustua egiten jarraitu beharko dute. Horixe bera egiten ari dira orain dela gutxi Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duen Abb-Niessen enpresan ere.

Zergatik euskaraz? Askotan nabarmendu izan dugu euskara lagungarria dela merkaturan lehiakideek baino posizio hobea irabazteko garaian, bezero kopurua handitzeko, merkatu berrietan sartzeko edo-eta etekinak areagotzeko; produktu eta zerbitzuak bere hizkuntzan eskaini behar zaizkiola bezeroari, harreman-hizkuntza berak hautatu behar baitu, produktu eta zerbitzuak lehiakorrek eta kalitatezkoak izango badira, etab. Hori guztia alde batera utzi gabe, barrura begira ere jarri behar dugu azpimarra, barrura begirakoa baita onurarik handiena; euskara gertutasunaren, konpromisoaren, inplikazioaren eta konfiantzaren adierazgarri baita.

Kolaborazioa 03

Josu Waliño, PuntuEUS Fundazioko zuzendaria

Elkarriketa 04

Aner Garmendia, EGA Masterreko gerentea

Enpresarean 07

Kursaalen egin zen jardunaldia-
ren kronika

Sariak 08

Lazarraga Sariak 2014

Erreportajea 10

ABB Niessen

Elkartearen berriak 13

Buber saria jaso du elkarteak

Mintzodromoak 14

400 lagun baino gehiago

Ziurtagiriaren banaketa 15

Gernika-Lumo
Errenteria

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkartea www.baieuskarari.eus · Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148
1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 · Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026
Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz t. 945215196 · Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez · Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.
Diseinua eta maketazioa: dalvez · Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkartea, Arteman Komunikazioa eta ABB Niessen.
Inprimatzailea: Leitzaran · Banaketa: Ziurtagiriaren Elkartea · Lege gordailua: SS-497-2010

 @baieuskarari

 baieuskarariziurtagiria

www.baieuskarari.eus



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 · Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Josu Waliño
PuntuEUS
Fundazioko
Zuzendaria

PuntuEUS horixe baita: Interneten bereizten gaituen puntua. Muga geografikorik gabeko puntua.

Abizen egokiaren garrantzia

Bidaia luze baten amaieran abiapuntura iritsi gara. Izaten dira horrelako bidaia, abiapuntua helmuga dutenak. PuntuEUS domeinuarena ere horrelakoa izan da, abentura baten hasierarekin amaitu den bidaia luzea.

Kataluniak 2006. urtean PuntCAT domeinua abiatzearekin batera, Iratxe Esnaolak gurean sustatu zuen euskal hizkuntza eta kulturaren domeinua izateko gogoia eta beharra. Proiektu honen inguruan elkartu ziren hainbat eragile, proiektu honen aniztasunaren adierazgarri diren eragileak, eta zazpi urte luze iraun duen bidaia luze batean abiatu ziren, lan isilaren bidez PuntuEUS proiektua errealitate bilakatzeko ahaleginean. Aurretik, bere helmugara iritsi da bidaia luze hori: abiapuntura hain zuzen ere. PuntuEUS guztiontzat eskuragarri bilakatu duen abiapuntura.

Euskararen Nazioarteko Egunean zabaldu zen PuntuEUS domeinua mundu guztiarentzat. Aitzindari eta abiarazte-aldiko faseetan PuntuEUS komunitateko kide izatera pasa ziren lagunekin batera, abenduaren 3an, PuntuEUS domeinua publiko orokorarentzat eskuragarri zegoela iragarri genuen, bi datu zehaztuz: une horretan 1.292 domeinu-izen genituen aktibo, eta urtea amaitzerako 2.000 izatea espero genuen. Oker geunden: 24

ordu beranduago 2.000ko helburu hori gainditua genuen. Ikaragarria!

Datu esanguratsua da hori, zalantzarik gabe. PuntuEUS domeinuaren beharra eta garrantzia azpimarratzen duen datua. Euskara eta euskal kulturaren komunitatea Interneten ordezkatu eta indartuko duen abizen egokia izateak gu guztiontzat duen garrantzia nabarmentzera datorren datua.

Interneteko ohiko domeinuek ez bezala, PuntuEUS domeinuak berezko esanahia duelako. EUS laburdurak, eduki semantikoa du bere baitan, euskaraz hitz egiten digu, euskal kulturaz hitz egiten digu, komunitate baten berezitasuna azpimarratzen du, eta gu guztiok, enpresa, erakunde, elkarte eta norbanakoak komunitate horren parte sentiarazten gaitu.

Finean, PuntuEUS horixe baita: Interneten bereizten gaituen puntua. Muga geografikorik gabeko puntua. Euskara eta euskal kulturaren komunitateari muga guztien gainetik Interneten dagokion berezko tokia adierazten duen puntua.

Milaka gara jada, eta askoz gehiago izango gara datozen egunotan PuntuEUS gure erreferentzia puntu bilakatuko dugunak. Gure bidaia hastera doa.

Ongi etorri PuntuEUS!

Aner Garmendia, EGA Masterreko gerentea

“Nazioartekotzea, berrikuntza eta pertsonak dira EGA Master ereduaren zutabe nagusiak”

“Ametsetan bakarrik dabilena, ametsetan baino ez dabil” esaldia askotan errepikatzen omen du Iñaki Garmendiak, EGA Master enpresaren sortzaileak. Proiektu arrakastatsu orok amets sendo bat du oinarri, akziora eramandako ideia-sorta amestua. Eta Iñaki Garmendiak hori egin zuen 1990ean. Gaur egun 150 herrialdetan saltzen ditu esku-tresnak. EGA Master kasuaren metodoa unibertsitateetara hedatu daiteke eta bere seme Aner eta Iñakik aitaren lekukoa berme osoz hartu dute. Enpresa lehiakorra, konprometitua, berrikuntzan eta pertsonetan oinarritakoa eta euskalduna da EGA Master.

Hobeto ezagutzeko BAI aldizkaria Aner Garmendiarekin egon da.

Ezer baino lehen, Aner, zer eskaintzen dio euskarak zuen ezaugarrietako erakunde bati?

Merkatura begira jarritz gero, esan daiteke euskarak ez duela garrantzirik gurean, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoan soilik %1 saltzen dugu. Gure eguneroko merkatu-hizkuntza ingelese da, baina horrek ez du esan nahi guretzat euskara inportantea ez denik. Barrura begira euskarak konpromisoa eragiten du, taldearen kohesioa, proiektu baten nortasuna eta horri esker ere lortzen da arrakasta.

Esaterako, zuen kontratazio politikan euskara garrantzitsua da.



Leitzaran Grafika, S.L.
Martín Ugarte Kultur Perkoa
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 393067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala



Zuzendari komertzial berri bat kontratatu dugu, bere bizitza guztian Hong Kong, Korea eta Londresen lanean ibilitakoa, nazioarteko sekulako esperientziarekin. Eta guretzat baino, berarentzat oso garrantzitsua izan da gure enpresa euskalduna izatea, eta gurean euskal giroa nagusi izatea. Era berean, esango nuke gasteiztar euskaldun batentzat ere motibagarria dela EGA Masterren lan egitea. Eta hori oso garrantzitsua da. Lanean euskara erabiltzeko aukera ematen duten enpresak erakargarriagoak dira aukera hori ematen ez dutenak baino. Horrek azken finean lehiakorrago izatea esan nahi du.

Bai Euskarari ziurtagiria ere baduzue, eta nolabait hizkuntzaren erabilera sustatzen duzue.

Euskal hitzunen arteko batzar bat baldin badago, beti izaten da euskaraz, naturaltasun osoz gainera. Euskarak gurean balio handia du eta horren haritik euskara ikastaroak eskaintzen dizkiegu gure langileei eta oro har sekulako arrakasta dute.

Enpresarean ekimenean ere parte hartu duzu aurretik, EGA Master metodoaren bilakaeraren berri emanez.

Gaur egun 106 langile gara, eta horietatik 80 Gasteizen dihardugu,

beraz gure hizkuntzara eta gure enpresa sarera lotuta gaude. Hori esanda, aipatu nahiko nuke enpresa eta euskararen arteko loturak ez direla normalenak izaten, gaur egun ingelesa delako nagusi gure arloan, baina uste dut Enpresarean moduko ekimenak oso interesgarriak direla.

Hitz egin dezagun EGA Masterren arrakastaz. Zein da giltza?

EGA master kasuaren metodoaren liburua Madrilan aurkeztu berri dugu. Gure ereduaren hiru oinarriak nazioartekotzea, berrikuntza eta pertsonak dira. Horiexek dira gure proiektuaren zutabe nagusiak.

libbuk

2

elkar



elkarlibbuk.elkar.com
www.elkar.com



BERTSIO BERRITUA



Nazioartekotzea jaio ginenetik. Nire aitak Eibarko Armagintza Eskolan teknikari komertzial izan nahi zuela esaten zuenetik. Gu hasieratik ohitu ginen ekosistema ezezagun eta berrietan lan egitera, gure lurraldetik urruti bidea egitera. Gaur egun 150 herrialdetan saltzen dugu, mundu guztian antenak ditugu eta gure produktuen erabiltzaileek egunero informazioa bidaltzen digute.

Berrikuntza arloari ere errekurtsu ugari eskaintzen dizkiogu. Munduan ehunka erreminta ekoizle daude eta horietako asko oso merke ekoizten den tokietan daude kokatuta. Konpetentzia horren aurrean zer eskaintzen dugu guk? Nolabait bezeroei balio erantsi bat eman beharra dago, konpetentziagatik bereiztuko gaituena. Gure produktuek segurtasun handiagoa eskaintzen dute, eta langileek askoz seguruago egiten dute lan gure esku-tresnekin. Era berean, Ega Masterteko tresnak eraginkorragoak dira.

Hirugarren zutabe garrantzitsua pertsonak direla aipatu duzu.

Gazteak, motibatuak eta sekulako konpromisoarekin. Hiru ezaugarri horiek dituzte gure erakundeko pertsonak. Bi urtean behin 50 galderatik gorako inkesta egiten dugu. Eta gure langileek gehien baloratzen dutena da formazioa (ikasteko aukera eskaintzen diegu), elkarlanerako gi-



roa ere asko baloratzen dute eta gainera langileak baloratuak sentitzen dira. Garrantzitsua da lan-taldea eta zuzendaritzatik langileen ideiak aintzat hartzen ditugu. Nazioartekotzea, berrikuntza eta pertsonak, hirurak dira faktore garrantzitsuak: pertsonarik gabe ez baitago ekoizpenik ezta enpresa liderrik ere.

Eta merkatua norantz joango da etorkizunean?

Asia, Ekialde Hurbila, Hegoamerika eta oso nabarmen Afrika. Datorren hamarrekotan hazkunde handiena izango duten hamar lurraldeetatik zortzi Afrikan daude. Afrikan klase ertaina hazten ari da eta guk itxaropen handia dugu bertan. Gure salmenten %10 dagoeneko Afrikan

“Lanean euskara erabiltzeko aukera ematen duten enpresak erakargarriagoak dira aukera hori ematen ez dutenak baino. Horrek azken finean lehiakorrago izatea esan nahi du”.

egiten ditugu. Kongo, Etiopia, Ghana, Nigeria... asko saltzen dugu herrialde horietan. Gasa, minerala... industria handia dagoen tokietan. Baina baita lehengai industriarik ez dagoen lurraldeetan ere. ●

Enpresarean azokan eman zuen hitzaldia:



www.enpresarean.eus

/enpresarean

@enpresarean



Enpresa eta profesional sarea, euskaraz

- Enpresa munduko alibisten
- Elkarlanerako komunitatea
- Azokari buruzko informazioa



Ziurtagiriaren Elkarte

Lan eta bizi euskaraz

Etorkizuneko erronkei aurre egiteko bideak irudikatu zituen Enpresareanek Kursaaletan

Urriaren 23an egin zen Donostiako Kursaal Jauregian Enpresarean jardunaldia. Guztira, 115 bat lagunek parte hartu zuten, 80 erakunde eta enpresa ordezkatzuz. Rober Gutiérrez, Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak jardunaldiaren bukaeran esan zuenez, "helburuak bete dira eta etorkizunean gure enpresek izango dituzten erronkei aurre egiteko bideak irudikatu ditu Enpresareanek".

Enpresek gaur egun dituzten zenbait zalantzen inguruko gogoetak entzun ziren solasaldietan: etorkizuna, nazioarteratzea, lehiakortasuna, berrikuntza, Interneten saltzeko erremintak, hezkuntza, etorkizuneko ikasleak... Horrez gain, zenbait enpresek beren proiektuen berri emateko aukera ere izan zuten.

Enpresen arteko harremanak estutu, elkarlanerako bideak aztertuta eta negozio bide berriak zabaltzeko aukera izan zen, beste behin ere, Enpresarean azoka. ●



Kronika eta argazkiak



Bideoa



Ikerketa eta teknologia mintzagai Durangoko Azokako Kabi@n

Abenduaren 8an ikerketa eta teknologiarekin lotutako ekintzaile eta enpresendako tartea izan zen Durangoko Azokako Kabi@n. Enpresarean-ek eta OlatuKoop-ek lagundutako atalean, hainbat enpresa teknologikoren esperientzia ezagutu eta horiekin eztabaidatzeko beta izan zen. ●





Lan munduan euskararen alde egin duten arabarrei saria

Abenduaren 11n egin zen Lazarraga Sarien III. edizioko banaketa ekitaldia Gasteizko Bibat museoan. Bertan bildu ziren, besteak beste: sariak jasotzeko izendatuta zeuden finalistak; Eusko Jaurlaritzako, Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko ordezkariak; eta Kontseilua eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko kideak.

"Kronika
+ argazkiak
+ bideoak"





Bi urtean behin egiten da sariaketa, Bai Euskarari Ziurtagiria-ren Elkartek eta Arabako Foru Aldundiak antolatuta. Lazarraga Sarien helburu nagusia Arabako arlo sozioekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitate

edota pertsonak saritzea eta haien ahalegina errekonozitzea da. Hala, Lazarraga Sarien bidez, Arabako lau entitate eta pertsona bat saritu dira aurrean ere, euren lan ingurunean euskara txertatzeko aurrera eramandako ekimenengatik. ●



SARIDUNAK



✗ **Cándido Besa upategia (Eskuernaga)**



✗ **Electra Vitoria (Vitoria-Gasteiz)**



✗ **Oreka IT (Vitoria-Gasteiz)**



✗ **Agirre Lekue Farmazia (Vitoria-Gasteiz)**



✗ **Aner Garmendia (Vitoria-Gasteiz)**



Epaimahaia

✓ **Carmen Gutiérrez Fraile**

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendaria

✓ **Blanca Lacunza**

Arabako Foru Aldundiko Ekonomi Sustapenerako zuzendaria

✓ **Rober Gutiérrez**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendaria

✓ **Patxi Martínez de Marigorta**

Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitziburua

✓ **Olaia Arrieta**

Merkataritza eta Industria Ganbarako Merkataritza Zerbitzu eta Lege Euskarriaren koordinatzailea

✓ **Edurne Parro**

Arabako Merkataritza Federazioko kudeatzailea

✓ **Aitor Otaola**

SAEko ordezkaria

✓ **Jokin Larrañaga**

Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitziburua

ABB NIESSEN-en euskara kohesio sozialerako erreminta funtsezkoa

Niessen enpresak 100 urte bete ditu 2014an eta urte berean Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratuta ederto borobildu du mendeurrena. Gaur egun ABB multinazionalaren barruan dago Niessen enpresa, eta horrek bereziagoa egiten du nazioarteko egitura erraldoi baten barruan dagoen erakundeak euskararen aldeko apustu sendoa egin izana.



Niessen enpresa Erreterian jaio zen 1914an, Guillermo Niessenek bultzatuta. Sorreratik enpresako arduradunek teknologiararen aldeko apustua egin zuten, zientzia-aurrerapenei asko erreparatuta. Hala, 20ko hamarkada erdian, isolatzeko eta moldeatzeko aproposa den bakelite material berria -osagai elektrikoetarako aproposa- komertzializatzen hasi zenean, Niessenek Estatuko bakelitearen kontzesio eskusiboa lortu zuen. Horrek mekanismo elektrikoien serie berritzaileak garatzeko aukera ezin hobea eman zion, eta enpresa esparru horretan espezializatu zen: lanpara euskarriak, igogailuetarako sakagailuak... Gainera, marka eza-gunetarako osagai berezi asko ere ekoizten zituzten. 30eko hamarkadan ia 100 langilek jarduten zuten bertan.

Entxufeetan espezializatutako enpresa hau luzaroan Erreteriarako ikur izan ostean, Oiartzungo Aranguren industrialdera pasa zen, eta han jarraitzen du oraindik.

Gaur egun Niessen ABB multinazionalaren parte bada ere, 100 urte pasa dira lanean hasi zirenetik eta osagai elektrikoien esparruan erreferentziatzeko da. Mendeurrena ospatzeko, '100 urte ilusioak piztuz' leloa asmatu zuten, enpresaren eginkizun nagusienarekin lotura zuzena duena.

Luzaroan motibazioa landuta

Euskarak enpresan izan duen bilakaera ez da luzaroan hain agerikoa izan barrura begira lan egin dutelako, baina pauso irmoak eman dira eta orain emaitzak begi bistan daude. Hala, ABB Niessenek jaso berri duen

“Motibazioa aspalditik landu badugu ere, Bai Euskarari ziurtagiriaren bidez enpresa bere osotasunean euskararen bidean jarri dugu”.

ziurtagiria aurretik modu iraunkorrean egindako lan eskergaren fruitua da.

Orain dela 15 urte talde bat eratu zen lan esparruan eta langileen artean euskara indartzeko. Euskara batzordeak motibazioa lantzea jarri zuen helburu. Helburu hori erdies-teko, bertso-afariak, kantuak, txangoak, zozketak, oraindik ere indarrean dauden argazki lehiaketak eta beste gauza asko antolatu zituzten. Horien artean, baita ere, aspalditik



Euskara batzordeak kaleratzen duen 'Nik esan' argitalpen hiru hilabetekaria. Bertan enpresako langile guztiek idatzi izan dute testurik inoiz, eta euskara ez dakitenen testuak euskarara itzultzen dituzte. Horretan ahalegin handia egiten dute batzordeko kideek. Lan horrek guztiak erraztu du euskararen aldeko jarrera positiboa nagusitu izana.

Baina, motibazioak motibazio, eremu bat harago joateko unea zela otu zitzaion Euskara batzordeari. "Mo-

"Arrakastarako ezinbestekoa izan da talde eragilean enpresako sail guztiak eta zuzendaritza inplikaturik egotea".

tibazioa oso ondo dago eta oso garrantzitsua da, baina arlo formalago eta eraginkorrago batera pasa nahi genuen; eta bide batez enpresa bera osotasunean euskararen bidean jarri", gogoratu du Euskara batzordeko kide Txus Alfonsok.

Niessen enpresan ohitura handia izan da betidanik sail desberdinen zereginekin lotutako neurketak egiteko; eta hala gauza normalentzat hartu zuten euskara bera ere neurtu eta prozedura baten barruan hobetzea edo lehenestea.

Beti ere Emun enpresaren aholkularitzak lagunduta, ziurtagiri bat lortzeko lanean jartzea erabaki zuten. "Enpresaren beste esparru batzuetan bezala, ziurtagiriek bermatzen dute arlo guztiei eragiten dieten prozedura arauak finkatzea". Hala,

enpresak Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriaren artean, bigarrena aukeratu zuten eta horren bila jo zuten.

Zuzendaritzaren inplikazioa

Behin erabaki hori hartuta, lanean serio demonio jarri ziren eta enpresako sail desberdinetan batzarrak deituta langile guztiak ekimenaren gainean informatu zituzten. Hori egin bezain laster, ziurtagiriaren aldeko lana gidatuko zuen taldea eratu zuten. "Ezinbestekoa izan zen talde horretan enpresako sail guztiak ordezkaturik egotea; eta, zer esanik ez, zuzendaria bera ere inplikaturik", azpimarratu du Alfonsok.

"Euskal hiztunok garenok badugu konpromiso bat euskararen aldeko ekimenak aurrera eramateko eta enpresaren alorrean ere euskara nor-



malizatzen saiatzeko”, esan du irmo ABB Niessen-eko gerente Iñaki Letek, ziurtagiria lortzeko prozesuan, beste langile batzuek bezala, lanean buru-belarri aritu izan dena.

Eta pozik dago Lete, oso pozik, ziurtagiria jaso izanagatik. “Poz handia ematen digu Bai Euskarari ziurtagiria lortu izana; zer esanik ez, gainera, mendeurrena bete dugun urte berean, guretzat ospakizun hauen baitan mugarrira zelako euskararen baitan ere zerbait garrantzitsua adieraztea. Ilusio handia egin digu langile guztioi”.

Langileen guztien poztasuna aipatu du Letek eta badu bere zergatia. Izan ere, euskarak oso onarpen handia du Niessenen baitan eta egiaztatuta dute, motibatzeaz gain, euskarak kohezio handia sortzen duela Niessen osatzen dutenen artean.

Barrura begirako lana

ABB Niessenentzat zaila da enpresaren kanporako alorrean euskara indartzea, berorren merkatuak orokorrean ez direlako euskaldunak. Barrura begira, berriz, presentzia handia du euskarak. Euskara batzordeak bi ur-

tetik behin egiten dituen neurketetan egiaztatu ahal izan dute langilearen %50 inguru euskaraz egiteko gai dela eta euskararekiko duten leialtasuna %80tik gorakoa dela. Datuak oso positiboak dira, baina barruan gehiago eragiten nahi dute.

Hain zuzen ere, Letek aldarrikatu du Euskal Herriko merkatuari begira zerbait egiterik dutenean, egiten dutela motibazio osoz. “Adibidez, oso argi genuen enpresaren mendeurrenari buruzko liburuak euskaraz behar zuela izan; eta euskaldunak diren bezeroei harrotasun handiz ematen diegu”.

Eta barruko jardunari jarraituta, enpresan erabiltzen dituzten domotikako hainbat elementu euskaratu izan dituzte, baina teknikoki izan dituzten oztopoengatik, ezin izan dute aurrera jarraitu. Hala ere, ez daukate etsitzeko asmoa, eta bilatuko dituzte beste bide batzuk.

Multinazionalaren baitan, aniztasuna

Bestalde, esanguratsua da nazioarteko multinazional baten barruan da-
goen enpresa batek euskara lehen-

“Oso pozik gaude ziurtagiriarekin; are gehiago, mendeurrenaren ospakizunen baitan mugarrira zelako euskararen baitan ere zerbait garrantzitsua adieraztea”.

tasun gisa definitu eta jorratu ahal izatea, merkatuan ezohikoa dena. “Nazioarteko merkatuan lehiatu behar dugun edozein enpresentzat zaila da ingelesa jauna eta jabe den esparruan euskarari leku nabarmena ematea, ez bakarrik multinazionalen gaudenontzat”. Hala ere, Letek ABBren berezitasun batzuk mahai gainera ekarri ditu: “ABB oso multinazional anitza da, ez dauka hizkuntza bakarreko oinarria eta seguruenik horregatik aniztasuna oso ondo onartuta dago; zerbait positiboa moduan ikusita dago”.

Horrekin lotura, Euskara batzordeko kide Txus Alfonso zein Iñaki Lete gerentea prest daude ziurtagiria lortzeko lan egin nahi duen beste edozein enpresatako kideekin beraien esperientzia partekatzeko. ●



Buber saria jaso dugu, euskarazko proiektu onenen sailean

Azaroaren 27an banatu zituzten Bilboko EIT-Bren egoitzan 2014ko Buber Sariak. "Euskarra ondoen sustatzen duen weba edo aplikazioa" sailean finalista zen Baieuskarari.eus, Auziaeuskaraz.com eta Baratze.com-ekin batera. Epaimahaiak saria Baieuskarari.eus-i ematea ebatzi zuen. Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak jaso zuen saria.



Euskal Internauten elkarteak, gainera, Mikel Agirregabiriari ohorezko saria eman zion Interneten egindako lana eskertzeko. ●

Hauek izan dira aurtengo irabazleak, atalez atal:

Euskarazko proiektuak:

● www.baieuskarari.eus

Software Libreko proiektuak:

● www.erlerobotics.com

Gastronomia eta Turismo proiektuak:

● www.nekatur.net

Herritarren partehartze proiektuak:

● www.txapeldunak.com

Lehen sektoreko, Makina erremintako eta Industriako proiektuak:

● www.llevamealhuerto.com

Proiektu berritzaileak:

● www.poyorock.es

Merkataritza proiektuak:

● www.dastatu.es

Enpresa edo Nazioartekotze proiektuak:

● www.factorco2.com

Proiektu solidarioa:

● Avifes.org

bidera
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa

bai
euskarari
zerbitzua eta
lana euskaraz

berria
taldea



400 lagun inguru aurtengo Mintzodromoan

Abenduaren 1ean egin genuen aurtengo Mintzodromoa Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. 400 lagun inguru izan ziren parte hartzen, gehienak ikasleak. Ikasketak, lan mundua, euskara, aisialdia eta kultura izan zituzten mintzagai, besteak beste.

Gasteizko hezkuntza zentroetako ikasleak izan ziren bertan: Egibide, Karmeldarrak, Mendebalde, Gamarra, Francisco de Vitoria, Presentación de María, Mendizabala eta Irale.

Ziurtagiriaren Elkartek urtero antolatzen du Mintzodromoa Euskararen Egunaren harira. ●

Argazkiak eta bideoa





Gernika-Lumoko 32 entitatek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek zazpigarren urtez banatu zituen ziurtagiriak abenduaren 2an, Gernika-Lumon. Udalerriko 32 enpresak, komertzioak eta era guztietako entitateek jaso zuten ziurtagiria.

Iaz Ziurtagiria jaso zuten guztiek berri dute aurten ere euskararekiko konpromisoa eta horiei berri bat gehitu zaie aurten, uztailen ziurtagiria eskuratu zuen Gernikako Nota-

ria. Hala, guztira 32 izan dira aurten banatu diren ziurtagiriak.

Espazioak euskararekin betetzen Elai Alai aretoan egindako ekitaldian parte hartu zuten ziurtagiridunek, udaleko ordezkariak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko ki-deek.

Ziurtagiriaren Elkartaren izenean Rober Gutiérrez zuzendariak ziurtagiridunak zoriondu zituen "espazioak euskararekin betetzen" ari direlako eta eskerrak eman zizkien Gernikako Udalarari, euskalgintzari eta Artezi urte hauetako elkarlana "emankorra" izan delako. Gutiérrezek Ziurtagiriaren Elkartek aurrera begira dituen helburuak ere azaldu zituen: "Etorkizunean alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten segitu nahi dugu eta, orain arteko datuak hobetu nahiko genituzke. Eta helburu horretan, zuek guztioi bidelagun nahi zaituztegu". ●

Euskararen aldeko lana aitortu zitzaien Errenteriako ziurtagiridunei



Errenteriako 24 ziurtagiridunek Bai Euskarari Ziurtagiriak jaso zituzten azaroaren 14an, Rober Gutiérrez elkarteko zuzendariaren eskutik. Gutiérrezek eskerrak eman zizkien Errenteriako Udalarari, Errenkoalde merkatarien elkarteari eta Lau Haizetara Euskara Elkarteari, maiztzean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren fruitu izan baitira ziurtagiri berri horiek. Era berean, eskerrak eman zizkien guztiei alor sozioekonomikoan euskararen normalizazioan eragiten bakoitzak bere esparruan jartzen duen hondar-alearengatik.

Errenteriako ziurtagiridunak elkartu ziren Errenteriako udaletxeko pleno aretoan, han izan ziren Errenteriako Udaleko ordezkariak ere, entitate hauek euskararen alde egin duten ahalegina aitortzeko. Denek batera familia argazkia egin zuten. ●

LANsarean
bilalan

www.lansarean.eus



@lansarean



Enpresa eta profesional euskaldunak
harremanetan jartzeko **webgunea**

- Lan bila zabilta?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

urte zahar,
urte berri,
bai euskarari!

Ziurtagiriaren
Elkartea

baieuskarari.eus



/baieuskarariziurtagiria



@baieuskarari

Lan eta bizi euskaraz



www.enpresarean.eus



/enpresarean



@enpresarean

LANsarean
bilalan

lansarean.eus



@lansarean